

## Bortz? Zergatik bortz?

Aingeru EPALTZA\*



**B**ortz? Zergatik bortz? Zergatik ez hamar, hogei, berrogei, berrogeita hamar? Zer da bortz liburuko liburutegia? Libururik handienez —mamiz ari naiz, ez tamainaz— horniturik ere. Eta nor naiz ni ezinbertzeko liburuen kontu horrekin inoren eskola-emaile gertatzeko? Liburu bakoitza izan baitaiteke ezinbertzeko, norendako noiz non eta horrela. Edo batere ez. Badira liburu sobera plazaratzen direla ohartarazten digutenak. Eta beharbada zuzen daude. Izan gaitezen apalak, beharbada gure lanak ere soberan daude.

Aitortuko dut. Ez dut zorte handirik izen handiko liburuekin. Mende honetako literaturaren izen maiztuenen idazleen lanetan, García Marquezen *Cien años de soledad* da aho bete hortz utzi nauten bakarrenetarik. Aureliano Buendíaren eta

# 25

bere familiaren goiti-beheitiak, hogeita hamar urte irauten zuen sikatea eta bertze horrenbertzeko euritea, patriarkaren ume zerri-buztanen ehiza etengabea... Topiko bat, kasik, baina egia. Liburu gutik zirraratu naute hainbertze, liburu gutik atxiki naute hain finki beren orrialdeetara, liburu gutiren irakurketaren bukaerak penatu nau hainbertze. Handik goiti dena barkatu diot kolonbiarrari, preziatzekoa (*Heriotza iragarritako baten kronika, El amor en los tiempos del cólera*) nola ahanztekoa (*Jenerala bere labirintoan*).

### Lotsagarri

Lotsagarri gelditzeko arriskua hartuko dut eta zart erranen: ez naiz “pisu” handiko literaturaren zalea. Eta berriz ere mamiz ari naiz, ez tamainaz. Errealismoa maiteagoa dut (magikoa izan ala ez), espermentalismoa baino. Ekintzak ekintzei harikaltzen dizkieten

\* Licenciado en Periodismo y traductor, escribe normalmente en euskara. Es autor de los siguientes libros: *Sasiak ere begiak badituk, Ur uherrak* (traducido al castellano con el título *Agua turbia*), *Lur zabaletan, Tigre ehizan*. Esta última novela ha sido traducida al catalán, al francés y al castellano como *Cazadores de tigres*. Ha escrito también libros destinados al público infantil. Premio Euskadi 1997.

lan biziak (*zerbait* gertatzen diren errelato horiek), gogoetaren eramale astunak baino. Badakit, ez naiz batere mollerno, batere apurtzailea, batere originala.

Demagun, adibidez, Vargas Llosa. Kritikari progre gehienek haren hasierako liburuak goraiatzat dituzte (*La ciudad y los perros* ezagunenetariko bat da horietarik), hau da — izan nadin gaizto—, ezkertiar eta fidelzale zeneko lanak. Alabaina nik, liberal nardagarri bat bilakatu zenetik aitzinakoak ditut aise ere gogokoago. Konparaziorako, *La guerra del fin del mundo* ustezko panfleto anti-iraultzailea (horrela bataiatu zuten, bederen, sasi-illustratu betoker batzuek), azken hogeita hamar urteetan argitaratu den liburu biribilene-tariko bat da niretako.

Berdintsu gertatzen zait mende honetako bertze munstro sakratu batzuekin. Joyce irlandar aberri-ukatzzailea handienetan handienetarik izanen da beti. Hala ere —Jainkoak barkatuko ahal nau!—, *Ulises* mokor espantagarri bat iduritzen zait, *Dublandarrak* edo *Artista gaztearen portreta*-ren aldean. Eta berdin gertatzen zait Gunter Grass alemaniarrearekin. *Las ratas* edo *El rodaballo*, nekez bukatu nituen, errazago *Latorrizko danborra*, eta bene-tako gozamina izan zen *Katua eta xagua* dastatzea. Horietarik guztietatik, zein hautatu beharko nuke gure balizko liburutegi horretarako? Kritikarendako idazlan kanonikoa ala nire gustukoa?

## Ezinezkoa

# 26

Zenbait idazlerekin, gainera, aukeraketa ezinezkoa egiten zait.

Melvillez, Defoez, Swiftez edo Cervantesez ari garenean, ez dirudi duda handirik izaten ahal dugunik zein izan beharko luketen gure apaletara ekarri beharre-koak. Liburu bakarreko idazleak ez izan arren, lan bat gailentzen da haien obra guztian, bertze edozein eztabaida alferrikakoa bilakatuz. Lau adibide horiekin segituta, inori gogo-ratuko litzaioke, hurrenez hurren, *Moby Dick*, *Altxor Uharte*, *Gulliver-en bidaiak*, *Kixotea* ez bertze hartzerik? Ez nik uste.

Bertze batzuekin, ordea, hautamen latza izanen genuke. Erran nahi baita, zer Borges nahi nuke, *Historia universal de la infamia*-koa ala *El Aleph*-ekoa? Zer Kafka, *Itxuraldaketa*-koa ala *El Castillo*-koa? Zer Cortazar, *Rayuela*-koa ala *Bestiario*-koa? Zer Maupassant, idatzi zituen hirurehun ipuin miresgarri baino gehiagoren artean? Zer London, haren bizitzan plazaratutako dozenaka elaberri bikainen artean? Tikitan, zorioneko ergelak “nor duxu maiteago, aita ala ama?” galdetzen zigunean bezain erantzun ezinean aurkitzen naiz.

Bortz liburu aipatu behar. Eta 20 bat joan dira dagoeneko. Eta zerrenda hasi baizik ez da. Sobera falta zaizkit, sobera gaurkoak, sobera atzokoak, sobera erenegungoak. Euskaldun bakarrik ere ez dut aipatu. Eta nola ez nuke euskal libururik izanen delako liburutegian?

Bortz? Zergatik bortz? Zergatik ez hamar, hoge, berrogei, berrogeita hamar? Faborez, ez nazazue halako atekan berriz ere sar!

OHARRA: Proposamen libertigarri bat. Zergatik ez aipatu gure liburutegira sekula santan ekarriko ez genituzkeen liburu famatuak?